Astigarragako Udala
udala@astigarraga.eus

TROYA IBILBIDEKO LOKALAK EGOKITZEKO JARDUERA ETA EXEKUZIO PROIEKTUAK IDATZI ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA ETA SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOA EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I.- XEDEA

Kontratazio-espediente honen xedea da Troya Ibilbideko lokalak egokitzeko jarduera eta exekuzio proiektuak idaztea, baita lanen zuzendaritza fakultatiboa eta segurtasun eta osasunaren koordinazioa egitea ere.

Espedientea 2 lotetan banatzen da (lote bakoitza kontratu bat da):

1. LOTEA: jarduera proiektua idaztea, exekuzio proiektua idaztea, obra zuzendaritza eta obraren exekuzioa zuzentzea.

2. LOTEA: segurtasun eta osasunaren koordinazioa.

II.- BETE NAHI DIREN BEHARRAK.

Astigarragako Udalak Troya Ibilbideko 4 lokal erosi zituen, L-6, L-7, L-21 eta L-22. Baina, erosi zirenetatik bi lokal trukatzea erabaki zen ondoren, hain zuzen, L-21 eta L-22 lokalak eman eta L-17 eta L-18 lokalak hartzea. Horrela, trukaketa gauzatu ondoren, udalak L-6, L-7, L-17 eta L-18 lokalak ditu jabetzan.

Lokal horiek Udal Brigadarentzat egokitu nahi dira. Gaur egun duten tokia ez da nahikoa duten materiala, tresnak eta makinaria gordetzeko. Izan ere, Brigadak erabiltzen dituen material eta tresnez gain, herriko eragile talde askoren gauzak ere gordetzen dira bertan. Hori dela eta, lau lokal hauek egokituz, behar horiek bete nahi dira.

Proiektuko eraikuntzari dagokionez, pieza bakar gisa planteatzen da, lau lokal biltzen dituena era malguan; horrek baterako funtzionamendua ahalbidetzen du, baita hura osatzen duten lau lokalen banakakoa ere.

III.- LEHENENGO LOTEAN EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

III.1.- PROIEKTUAK IDAZTEA

Proiektu teknikoak eta kontratuaren xede diren gainerako agiriak osatzen dituzten dokumentuek unean-unean Udalari aurkezteko garaian nahitaez bete beharreko legeriak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte. Gainera, esleipendunak behar diren kudeaketak egin beharko ditu, bai enpresa hornitzaileen aurrean, bai administrazio eskudunen aurrean, proiektuak gauzatzeko behar diren baimenak lortzeko, dena den, gero eskabide formalak udalak egin ahal izango ditu.

III-1.a.- **Jarduera sailkatuaren proiektua idaztea.**

Proiektu honek – hitzez eta grafikoki – azaldu beharko du garatu beharreko jardueraren eta hori kokatuko den espazioaren ezaugarriak (kasu honetan, brigadaren lokala), jardueraren araudi orokorra eta espezifikoa behar bezala justifikatuz eta arauetara egokitzeko beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak definituz.

Proiektua osatzen duten dokumentuek eta aurkeztu beharreko gainerako dokumentuek unean-unean indarrean dagoen legerian eskatzen diren eta Udalari aurkezten zaizkion unean nahitaez bete behar diren baldintzak bete beharko dituzte. Besteak beste:

.- 21/2013 Legea, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

.- 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena, eta ondorengo zuzenketak eta aldaketak.

.- 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa eta haren Jarraibide Teknikoak onartzen dituena.

.- 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.

.-3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa.

.- 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez. Oharra: Errege Dekretu hau betetzeko, proiektuak/dokumentazio teknikoak justifikatu beharko du ez direla gainditzen Dekretuaren III. eranskineko B2 taulan ezarritako balioak.

.- Astigarragako udalerrian kutsadura akustikoaren aurka babesteko udal ordenantzaren testu bategina (osorik udal webgunean argitaratua)

.- 1027/2007 Errege Dekretua, Eraikinetako Instalazio Termikoen eta Jarraibide Teknikoen Erregelamendua eta 238/2013 Errege Dekretuan adierazitako aldaketak onartzen dituena. (Oharra: erregelamendu hau betetzen dela justifikatzeko, proiektuak/dokumentazio teknikoak Ongizate eta Higieneari buruzko IT1.1 txostenean eskatzen den dokumentazioa jaso beharko du).

.- Agindua, 2008ko uztailaren 22koa, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, eraikinetako instalazio termikoen erregelamenduari (RITE) buruzko arauak ematen dituena. Oharra: instalazio termikoetatik datozen errekuntza-produktuak badaude, justifikatuko da Agindu honetako 2.

.- Eraikuntzako Kode Teknikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legearen Energia Aurrezteko Oinarrizko Agiria.

.- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

III.1-b.- **Exekuzio proiektua idaztea.**

Proiektuak eraikina deskribatuko du eta hura gauzatzeko obrak definituko ditu, haren ezaugarrietara behar bezain ondo egokituta, proposatutako konponbideek EKTaren (CTE) eta aplikagarri den gainerako araudiaren oinarrizko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu ahal izateko moduan, eta hura egikaritzen den bitartean zalantzarik gabe baloratu eta interpretatu ahal izango dira, administrazio publikoentzat indarrean dagoen kontratazio-legeriaren arabera aplikatu beharreko gutxieneko irizpideei jarraikiz. Eraikuntza-elementuen funtzionaltasunari eta alderdi funtzionalei buruzko oinarrizko betekizunak beren araudi espezifikoaren arabera arautuko dira.

Proiektuak garatu beharko du *"Proyecto Básico de Acondicionamiento de locales para instalaciones municipales de servicios urbanos de mantenimiento del Ayuntamiento de Astigarraga"* izeneko proiektua, udalak horrela eskatuta, Trepat Olaizola SLP ingeniaritza eta MH+A arkitektura bulegoak 2021eko abuztuan idatzi zuena. Oinarrizko proiektu hori lizitatzaileen eskura egongo da, Astigarragako Udaleko kontratatzailearen profilean, Eusko Jaurlaritzaren kontratazio-plataforman kokatuta duena. **Oinarrizko proiektu horren arabera, aurreikusten den gauzatze materialaren aurrekontua 475.141,13 euroko da.**

Gainera, proiektua idazterakoan, kontuan hartu beharko da, Eraikuntzaren Kode Teknikoan ezarritakoari kalterik egin gabe, lokala egokitu egin beharko dela aurrezpen eta efizientzia energetikorako eta ingurumenaren babeserako lagungarri diren irizpideei jarraituz, bai eraikuntza-inguratzaileari dagokionez, bai ematen diren instalazioei dagokienez. Gainera, kontuan hartu beharreko faktoreak izango dira ekonomikoak, sozialak, administratiboak, estetikoak, urbanistikoak, energetiko-ingurumenekoak, eta hezkuntzakoak.

Proiektuak – gutxienez – dokumentu hauek izango ditu

I. MEMORIA (EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko da)

I.1. DESKRIBAPEN- ETA JUSTIFIKAZIO-MEMORIA, honako informazio honekin:
- I.1.1 Eragileak
- I.1.2 Aurretiko informazioa
- I.1.3 Bete beharreko beharrak eta hartutako irtenbidearen justifikazioa, kontuan hartu beharreko faktore guztiak zehaztuta
- I.1.4 Proiektuaren deskribapena
- I.1.5 Eraikinaren prestazioak

I.2. ERAIKUNTZA-MEMORIA. Hartutako konponbideen deskribapena
- I.2.1 Konpartimentazio-sistema
- I.2.2 Akabera-sistemak
- I.2.3 Egokitzeko sistemak eta instalazioak
- I.2.4 Ekipamendua

I.3. EKT BETETZEA

I.3.1 Segurtasuna suteetan
I.3.2 Erabileraren eta irisgarritasunaren segurtasuna
I.3.3 Osasungarritasuna
I.3.4 Zarataren aurkako babesa
I.3.5 Energia aurreztea

I.4. BESTE ERREGELAMENDU ETA XEDAPEN BATZUK BETETZEA

I.5. MEMORIAREN ERANSKINAK
I.5.1 Lokaleko instalazioak
I.5.2 Eraginkortasun energetikoa
I.5.3 Hondakinen kudeaketaren azterketa
I.5.4 Kalitate-kontrolaren azterketa
I.5.5 Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana edo oinarrizko azterlana

II. PLANOAK (karatulak eta legendak elebidunak izan beharko dira)
II.1. Plano orokorrak
II.2. Arkitektura-planoak
II.3. Egituraren planoak
II.4. Instalazioen planoak

III. BALDINTZEN AGIRIA: baldintza tekniko zehatzen agiria. Agiri horretan, obren deskribapena egingo da eta obrak nola egingo diren arautuko da, honako hauek adierazita: obrak nola egingo diren, kontratistari dagozkion betebehar teknikoak, gauzatutako unitateak nola neurtuko diren eta erabilitako materialen eta gauzatze-prozesuaren kalitate-kontrola nola egingo den. Honela osatuko da:
III.1. Materialei buruzko aginduak
III.2. Obra-unitateen araberako gauzatzeari buruzko aginduak
III.3. Amaitutako eraikineko egiaztapenei buruzko aginduak

IV. Neurketak

V. Aurrekontua
V.1. Aurrekontua, unitateko prezioak eta, hala badagokio, prezio deskonposatuak adierazita, neurketen egoera eta balorazioa egiteko xehetasunak
V.2. Laburpen orokorra

Proiektua osatzen duten dokumentuek unean-unean indarrean dagoen legerian eskatzen diren eta Udalari aurkezten zaizkion momentuan nahitaez bete behar diren baldintzak bete beharko dituzte. Bereziki, honako legedi hauek hartu beharko dira kontuan:

.- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.

III.1-c.- **Proiektuak aurkeztea**

Proiektuak (jarduera eta obrak) kontratuaren arduradunari aurkeztu eta entregatuko zaizkio, gehienez ere 14 asteko epean; eta horrek egindako txostenaren arabera, onartu, baztertu edo bertan ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko da.

Azken kasu horretan, eta SPKLren 314. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2 asteko epea izango du (jakinarazpenean beste epe bat ezartzen ez bada), eta epe hori igarota, Udalak proiektua onartu ahal izango du, akatsak zuzendu badira, edo, bestela, atzera bota ahal izango du.

Idatzizko dokumentazioa DIN A-4 tamainako orrietan aurkeztuko da, bi aldeetatik, kopiak behar bezala irakurtzeko modukoak izan daitezen. Dokumentu bakoitzak bere orriak hurrenez hurren zenbakituta eramango ditu. Azken orri bakoitzean data (eguna, hilabetea eta urtea) eta proiektua egin duen teknikariaren jatorrizko sinadura agertuko dira.

Instalazioen kapituluei dagozkienak, eta, hala badagokio, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitatea Kontrolatzeko Plana, Hondakinen Kudeaketa, Jarduera Proiektua eta abar, bereizita aurkeztuko dira, eta horietako bakoitzean memoria, aurrekontua, baldintza teknikoak eta horiei dagozkien planoak multzokatuko dira, karpeta independenteetan, dagokien erakundeetan izapidetzeko.

Planoak tamaina normalizatu erabilgarrietan aurkeztuko dira, eta solteak izango dira, UNE 1-027-75 arauaren arabera tolestuta.

Esleipendunak obra-proiektuaren paperezko bi ale eman beharko dizkio Udalari, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, haren CD osoarekin batera, jatorrizko fitxategi guztiak pdf formatuan eduki behar duena, baita ere honako programa informatiko hauekin bateragarria den formatu digitalekoa: Microsoft Office edo Libre Office testuak; aurrekontua, Presto edo BC3 artxiboekin bateragarria den beste edozein aurrekontu-programa, eta zati grafikoa Autocad v2010.

Esleipendunak honako programa informatiko hauekin bateragarria den formatu digitalean soilik entregatu beharko dio Udalari Jarduera Proiektua; testuak Microsoft Office edo Libre Office sistemetan; eta zati grafikoa, berriz, Autocad v2010 formatoan.

III.2.- OBRA ZUZENDARITZA ETA OBRA EXEKUZIOAREN ZUZENDARITZA

Lehen lote honetan, obraren zuzendaritza fakultatiboari dagozkion lanetako bi egingo dira, hain zuzen, obraren zuzendaritza eta obraren exekuzioaren zuzendaritza.

Eginkizun hauek gauzatzeko, zehatz-mehatz bete beharko dira arlo horretan indarrean dauden legezko eta/edo erregelamenduzko xedapenetan ezarritako betebeharrak, agiri

honetan jasotakoak, administrazio-klausula agirian eta kontratuan jasotakoak, bai eta esleipendunek beren proposamenetan adierazitakoak ere.

III.2-a.- **Egitekoak**:

1. Obra hasi aurretik:
Enkargu profesionala formalizatzea eta izenpetzea; obraren dokumentazio teknikoa eskatzea eta egokia dela egiaztatzea, eta agindu-liburua edukitzea; obrako segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzailea dagoela egiaztatzea eta kontratistari segurtasun- eta osasun-planak eskatzea; lantokia ireki dela egiaztatzea; gorabeheren liburua eskatzea eta edukitzea obran; azpikontratazio-liburua dagoela egiaztatzea, eta zuinketa-akta eta hasierako akta egitea.

2. Obrak irauten duen bitartean:
Obra eta haren exekuzio materiala zuzentzea; obraren kalitatea kudeatzea eta kontrolatzea; hondakinak kudeatzeko planaren betetze-mailaren jarraipena egitea; obra-bilerak egitea eta dagozkion aktak egitea; txostenak egitea gorabeherei buruzkoak, eta denboren, epeen eta gauzatze-daten jarraipenekoak; kalitatea kontrolatzeko plana betetzen dela kontrolatzea; behar diren probak, egiaztapenak eta ikuskapenak egitea, amaitutako obrekin eraginkortasun energetikoa zehazteko; eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketaren jarraipena eta kontrola egitea; kontratua aldatzeko beharrak aztertzea eta izapidetzeko behar diren txostenak egitea; udal arkitekto teknikoari obren gauzatzearen berri ematea, eta harekin bilerak egitea.

3.- Obra amaitu ondoren eta berme-epean. Agiri honen III.1-b atalean agertzen den dokumentazio guztia prestatzea eta entregatzea; berme-epean, obrak gauzatzean dauden akatsak konpontzeko jarraibideak ematea; eta berme-epea bete aurreko hamabost eguneko epean, obren txostena idaztea, hala badagokio kontratu horren likidapena egiteko.

III.2-b.- **Obra amaitzean entregatu beharreko dokumentazioa**.

1.- Ziurtagiriak

- Obra-amaierako ziurtagiria
- Kalitate-kontrolaren ziurtagiria
- Instalazioen arloko ziurtagiriak
- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.
- Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena

2.- Obraren jarraipenerako dokumentuak. EKT-k ezartzen duen bezala (I. zatia, II. eranskina, II.1 atala):

- Agindu-liburua.
- Gorabeheren liburua
- Proiektua, haren eranskinak eta obra-zuzendaritzak behar bezala baimendutako

aldaketak (egikaritze-proiektuaren dokumentazio guztia erantsita), PDF formatuan eta editagarrian.

3.- Kalitate-kontroleko dokumentazioa: produktuen harrera-kontrola, gauzatze-kontrolak eta amaitutako obraren kontrola.

- Egindako kontrolaren dokumentazioa
- Eraikina eta haren instalazioak erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideei buruzko dokumentazioa, aplikatu beharreko araudiaren arabera, LOEren 7. artikulua eta EKT-aren 8.1 artikuluaren I. zatiaren 3. puntua.
- Eraikitzaileak obra-unitate bakoitzaren gainean prestatutako kalitatearen dokumentazioa.

Dokumentazio horrekin batera, kontrolen eta emaitzen zerrenda bat aurkeztuko da, EKT-aren aplikazio-eremuko obretan.

4.- Obraren amaierako dokumentazio teknikoa PDF formatuan eta editagarrian.

5.- Obren neurketa orokorraren datuak eta obren amaierako ziurtagiria.

6.- Obren egoerari buruzko txostena, berme-epea bete aurreko hamabost eguneko epean egin beharrekoa, obra-kontratua likidatzeko.

IV.- BIGARREN LOTEAN EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

IV.1.- SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN KOORDINAZIOA

Obra-faseko segurtasun- eta osasun-koordinatzailea zuzendaritza fakultatiboan integratutako teknikari eskuduna da, sustatzaileak izendatua eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan aipatzen diren lanak egiteko.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearekin bat etorriz, 15. artikuluan jasotzen diren prebentzio-ekintzaren printzipioak obra egiten den bitartean aplikatuko dira, eta, bereziki, honako zeregin edo jarduera hauetan:

- Obra txukun eta garbi mantentzea.
- Lanpostuen eta lan-eremuen kokalekua hautatzea, sartzeko baldintzak kontuan hartuta, eta joan-etorrietarako edo zirkulaziorako bideak edo guneak zehaztea.
- Materialak manipulatzea eta bitarteko osagarriak erabiltzea.
- Obra gauzatzeko behar diren instalazioen eta gailuen mantentze-lanak, zerbitzuan jarri aurreko kontrola eta aldian-aldian kontrola egitea, langileen segurtasunari eta osasunari eragin diezaieketen akatsak zuzentzeko.
- Materialak biltegiratzeko eta biltegiratzeko eremuak mugatzea eta egokitzea,

bereziki gai edo substantzia arriskutsuak badira.

• Erabilitako material arriskutsuen bilketa.

• Hondakinak eta obra-hondakinak biltegiratzea, ezabatzea edo hustea.

• Obraren bilakaeraren arabera, lanak edo lan-faseak egiteko erabili beharko den denbora efektiboa egokitzea.

• Kontratisten, azpikontratisten eta langile autonomoen arteko lankidetza.

• Obran edo obraren lekutik gertu egiten den beste edozein lan edo jarduerarekiko interakzioak eta bateraezintasunak.

Obra egiten den bitartean, segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzaileak honako eginkizun hauek bete beharko ditu, besteak beste:

- Obren enpresa esleipendunak aurkeztutako segurtasun- eta osasun-planaren berri ematea, hori onartu aurretik.
- Prebentzioaren eta segurtasunaren printzipio orokorren aplikazioa koordinatzea.
- Jarduerak koordinatzea, kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistek eta langile autonomoek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean jasotzen diren prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatzen dituztela bermatzeko.
- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikuluan aurreikusitako enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.
- Lan-metodoak zuzen aplikatzen direla kontrolatzeko ekintzak eta funtzioak koordinatzea.
- Beharrezko neurriak hartzea baimendutako pertsonak bakarrik sar daitezen obran.
- Gorabeheren liburua eramatea, obraren segurtasun- eta osasun-planaren kontrola eta jarraipena egiteko.
- Obrako segurtasuna eta osasuna koordinatzeko aldizkako bilerak egitea, eta bilera horien akta egitea.
- Obrak amaitzean, segurtasun- eta osasun-koordinazioaren amaierako ziurtagiri-egintza aurkeztea.

Nolanahi ere, esleipendunak bete eta betearazi beharko du, bere eskumenen barruan, urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretua, eraikuntza-obretan segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena.

Laneko Segurtasun eta Osasun Planari eta hasierako planaren aldaketei buruzko txostenak alderdi hauek jaso beharko ditu:

• Obraren izena.

• Obraren kokapena / zuzendaritza.

• Obraren sustatzailea.

• Proiektuaren egilea.

• Obraren zuzendaritza fakultatiboa.

- Obraren esleipenduna eta Segurtasun eta Osasun Planaren titularra.
- Segurtasun eta Osasun Planaren titularra den kontratistak obran esku hartzea.
- Segurtasunaren eta osasunaren oinarrizko azterlanaren egilea edo egileak.
- Obra egin bitartean segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea.

Astean behin, gutxienez, bisitaldiak egingo dira obrara. Gainera, obrara joan beharko da, kontratuaren udal-arduradunak edo kontratistak hala eskatzen badu.

V.- BISITA PROGRAMATUA ERAIKINERA

Bisita programatua egingo da eraikinera, hala nahi duten lizitatzaileekin, udal-arkitekto teknikoarekin edo haren ordezko beste pertsona batekin batera.

Horretarako, aldez aurretik hitzordua eskatu beharko da 943 33 50 68 telefonora deituz, edo mezu bat bidaliz helbide elektroniko honetara: obraketazerbitzuak@astigarraga.eus